

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Komunikazio-kanalak:

- **Bertakoa (aurrez aurrekoa):** Parte-hartzaileak toki berean daude eta zuzenean hitz egiten dute. Adibidez: aurrez aurreko elkarriketa.
- **Urrunekoa:** Parte-hartzaileak fisikoki urruti daude, eta beste baliabide batzuen bidez komunikatzen dira (telefonoa, bideo-deia, e.a.).

Bezeroak gure dendara etorri gero bertako komunikazioa edukiko dugu, elkarrekin hitz egin, beraien zalantzak argitu... Bai klaseak, bai produktuen erosketa aurrez aurrekoa izan daiteke. Baina, baita, urrunekoa ere. Klaseak normalean aurrez aurre egingo diren arren salbuespenak egon daitezke. nahiz eta gomendagarriagoa izan produktuak probatzeko aurrez aurrekoa izatea urruneko izan daiteke. Gure telefono zenbakira deituz gero edo eta gmail bat idatzi gero zure mezuak erantzun bat izango du.

Banaketa-kanalak:

- **Zuzeneko banaketa:** Produktuak edo zerbitzuak zuzenean kontsumitzaileei saltzen dizkiegu, bitartekaririk gabe
 - Online denda propioan.
 - Denda fisikoan.
- **Zeharkako banaketa:** Produktuak bitartekarien bidez saltzen ditugu. Adibidez:
 - Handizkarietatik txikizkarietara eta azkenik kontsumitzailetara.
 - Banaketa zentroan edo sarean.



Hau da, enpresa bateri audifonoak eta inplanteak erosiko dizkiogu, ondoren , guk, produktua behar dutenei saltzeko. Beste alde batetik, klaseak zuzenekoak dira, ez bai dago bitartekaririk, guk ikasleei irakatsiko diegu hizkuntza eta gaiari buruzko beste hainbat aspektu.

Salmenta-kanalak:

- **Salmenta mistoa:** Zuzeneko eta zeharkako salmentak konbinatzen ditugu, bezero talde desberdinei iristeko. Guk gure produktuak saltzeko denda fisikoa dugu eta baita online denda ere. Online dendako produktuetan, hornitzaileak dira banaketa eta, batez ere, instalazioa eta mantentze-lanak egiten dituztenak.

Bezeroei balio proposamena helarazteko erabiltzen ditugun kanalak hauek dira:

- Webgunearen bidez
- Mezu elektronikoen bidez
- Sare sozialen bidez
- Hitzaldien bidez
- Marketing tradizionalaren bidez